

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### NEKAZARITZA ZUZENDARITZA

#### **Arabako Ziraoko zenbait katastro lurzati pribatu bateratzeko oinarri arauak onartzen dituen ebazpenaren jakinarazpena**

Arabako Ziraoko zenbait katastro lurzati pribatu bateratzeko prozeduran interesa duen orori jakinarazten zaio Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak onartu egin duela uz-tailaren 7ko 1342/2016 Ebazpena, Arabako Ziraoko zenbait katastro lurzati pribatu bateratzeko oinarri arauak onartzen dituen, bai eta iragarki hori ALHAOn argitaratzea ere.

Interesa dutenek azter ditzaketen dokumentuak honako hauen ingurukoak dira: barne hartutako lurzatiak, jabari publikokoak izanik salbuesten diren eremuen eta bazter utzitako finken perimetroa zehaztea, lurren sailkapena eta koefizienteen zerrenda, eta jabeak eta kargen edo bestelako egoera juridikoen titularrak zehaztea, zeinen jabaria eta titulartasuna formalki aitortu baitira. Agiri horiek eta iragarki hau (iragarkia ALHAOn ere argitaratuko da) Ziraoko Kontzejuaren lokaletan eta Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuan egongo dira ikusgai hogeita hamar egunez.

Onartutako oinarri arau hauen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Nekazaritza Saileko foru diputatuari, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko den idazki baten bidez, gorago adierazitako hogeita hamar eguneko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 9a

*Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua*  
**JOSE ANTONIO OCIO ORIVE**